

2. Merkatuaren segmentazioa

Hasieran enpresa txiki bat izango gara. Horrek esan nahi du ezin garela joan leku urrunetara eta gure merkatua segmentatu behar dugula. Hasieran pentsatu genuen, gure zerbitzuak eskaintzen duen pertsonaren lekura bizikletaz joatea. Horrek esan nahi du Bizkaiatik ezin garela atera gure zerbitzuak denboran entregatzeko. Gure merkatua Bizkaira segmentatuko dugu gure enpresa handiagoa izan arte.

Gure zerbitzuak 20-99 urte arteko bezeroetara eskaintzen diegu. Honen adibidea ditugu denbora gutxiko jendea (hala nola, langileak eta denbora gutxi dituzten gurasoak) edota laguntza behar duten jende heldua (hemen 75 urte gorako jendea sartzen da gehienez, arazoak dituztelako bizitzerakoan, ezin direlako izan guztiz independenteak). Baita elbarrientzako zerbitzuak eskaintzen ditugu.

